



ONDARROAKO UDALA



UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra: Ohiko Udalbatzarra
Deialdia: Lehena
Eguna: 2015-12-17
Ordua: 20:00- 20:10
Tokia: Kofradi Zaharreko 2. Solairuko areto nagusian.

Bertaratuak:

- JOSU ARRIZABALAGA BADIOLA.
- RAKEL ELU BENGOETXEA
- ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA
- VISIT BEIRO BADIOLA
- TXOMIN ETXABURU SOLABARRIETA
- ENERITZ BASURKO PAGOAGA
- UNAI BARRENETXEA GURRUTXAGA
- IÑAKI LERSUNDI ARRIZABALAGA
- MARIA DOLORES ETXANO VARELA
- MIREN AGURTZANE URRESTI AZPIRI
- ADRIAN OSA IBARLOZA
- AGURTZANE IRIONDO LEJARDI.

Ez bertaratuak:

- IBON ARANBARRI ETXABURU.

Idazkaria: Garaine Ajuria Lasuen



Jarraian, Alkateak, azaroaren 28ko 2568-1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma badagoela egiaztatu du, eta batzordea eratutzat jo da.

Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

1.- Aurreko akta irakurri, eta hala badagokio, onartzea.

Batzordekideren batek aktan testuei buruzko adierazpenik egin nahi ote duen galdetu du. Adierazpenik ez dagoenez, akta bozkatu eta **ahoko batez** onetsi dute.

2.- Alkatetza dekretuen kontu emana.

Josu Arrizabalaga jaunak hitza hartu du azaltzeko sinatutako dekretuen berri ematen dela. Galdera egon ez denez, eta Udalbatzak sinatutako dekretuen berri izan duenez, hurrengo puntuarekin jarraitu du.

3.--Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Ondarroako Udalaren artean Artibai Egoitzan. Egoitza zerbitzua emateko sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren onarpena.

Rakel Elu andreak hitza hartu du azaltzeko hitzarmenaren baldintzak, hitzarmenak azken aldaketaren plaza, prezio duela azpimarratzen du. Bestetik, Etxaburu jaunak adierazten du Bizkaiko Foru Aldundiak bidalitako zirriborroan egoitzako pertsonala kontratatzeko irizpide batzuk jartzen zirela (langabezia daudenak, euskara, berdintasuna...). Udalak klausula berri horiek ez agertzea eskatu du, profesionalak behar direlako lan poltsetan, batik bat. Beste irizpideen inguruan, bai euskara edo berdintasuna) lan poltsetan erabiltzen direnak dira.


Ikusita 2015ko abenduaren 2an Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako lankidetzaren hitzarmenaren zirriborroa.

Udalbatza Osoari erabaki hau hartzea proposatu zaio:

Lehena: Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Ondarroako Udalaren artean Artibai egoitzan zerbitzua emateko sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren onarpena

Bigarrena: Alkateari hitzarmen hau sinatzeko eskumenak ematea.

Hirugarrena: Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailari eta Udal kontu-
hartaileari akordio honen berri ematea.



Aho batez onartu egin dute Udalbatza kideek.

4.- Aurreko ekitaldietako gastuen onespena 2015-03.

Aurreko ekitaldietan hartutako gastu konpromezuetatik eratorritako zenbait betebeharrak aintzatesteko irekitako **2015-03** zk. espedientea ikusirik, eta, Apirilaren 20ko 500/90 Erret Dekretuaren 602 art.ak xedatutakoarekin bat etorritik, Udalbatza Osoari hurrengo hau proposatzen zaio:

Proposatzen zaio Udalbatzari:

Lehena.-Aintzatestea Udal honi eska dakiskiokeen kreditutzat, 1.745,91 € zenbatekoa, aurreko ekitaldietan hartutako gastu konpromezuei dagozkienak, eta 2015/03 zerrendan agertzen direnak, Udal Kontuhartaileak izenpetuta

AURREKO EKITALDIETAN HARTUTAKO GASTUEN KONPROMEZUAK **2015-03 zk.n Zerrenda**

HARTZEKODUNA	FAKTURA		Zenbatekoa
	Zenbakia	Data	
C.D.Aurrera: 2014-2015 denboraldiak hesia egin eta kokatzea	14/15-37	2015-01-31	300,08
Consejo General del trabajo Social: ihardunaldiak zinegotzientzat	JOR181/14	2014-06-05	120,00
BEZ.: preskripzioa	2015/hainbat dkt	2015-10-28	1.244,99
BAO: 2009-11-18 iragarkia.Lizitazioa bertan behera	09K0215054B1V	2009-11-19	80,84
GUZTIZKOA			1.745,91

Bigarrena.- Apirilaren 20ko 500/90 Erret Dekretuaren 26.2.b) art.ak xedatutakoarekin adostasunez, aurreko kredituak egungo ekitaldiko gastu aurrekontuaren baitan erantsiko dira, dagozkien gastu partidetan.

Aho batez onartu dute udalbatza kideek.

Jarraian, azaroaren 28ko 1986/2568 Errege Dekretuak 126.2 artikuluan dioenaren arabera Alkate jaunak hala eskatuta, Udalbatzako kideei proposatu die gai zerrendan ez dagoen gaiari urgentziako botoa ematea:

-Gaia: Rakel Elu Bengoetxea andrearen dedikazio onartzea.

Aho batez onartu denez, segidan Alkate jaunak adierazten du interesgarria dela beste zinegotzi bat lanean egotea Udalean, eta beraz proposatzen du Rakel Elu andreari 30% dedikazio partziala onartzea.

Maria Dolores Etxaburu andreak hitza hartu du adierazteko, gaur arratsaldean, jaso dutela puntu urgente honen inguruko informazioa, beraz eskatu du arinago jakinaraztea puntu hauek, bere taldea aztertzeke eta erabakitzeke denbora izateko. Bestetik, adierazi du Ondarroako Udalean beste pertsona bat egotea ez dela izango eskasa, eta horregatik euren boska aldekoa izango dela.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 legearen 75. artikuluan xedatutako kontuan hartuta eta Bizkaiko Foru Aldundiaren, ekainaren 9ko 82/2015 Foru Dekretuarekin bat etorritik, honako proposamena egiten da:

Lehena: Rakel Elu Bengoetxea andrearen 30% dedikazio partziala onartzea 5.000,00 euroko ordainsari gordina izango duelarik 14 pagatan gehi Gizarte Segurantzari edo MUFACEn dagokion alta emango da. Erabaki honek eragina edukiko du eginkizun berezietarako lizentzia hasi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bigarrena: Bizkaiko Aldizkari ofizialean argitaratzea.

Aho batez onartu egin dute Udalbatza kideek.

5-Eskariak eta Galderak.

Eskaririk eta Galderarik ez denez egon osoko bilkura amaitutzat eman dut alkatearen oniritziarekin, eta bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut.

IDAZKARIA

